TERDITAN

PATRIZIA ETXEGARAI ALTUNA
DBH 1. eta 2. kurtsoak 1. saria
Berako Labiaga Ikastola

Eta musua emateko unea ailegatu zen. Gutxi falta gure ezpainak elkartzeko, gure digestio aparatuek bat egiteko... tartetxo bat... bi zentimetro... bi milimetro...

Piribirii!! Iratzargailua. Kaka zaharra! Behin hain hurbil egon, eta nola ez! Iratzargailua. Ekaitzekin ditudan fantasia goxoak alde batera utzi beharko ditut eta errealitate hotz, krudel eta mingarri honetara bueltatu.

Hogei minutu geroago, sukalde ttikian nago, irratia piztu nahian entxufatu gabe. Hoberena zara, Inge!

Alferrikako zortzi saiakeren ondoren, errealismoa erabili eta arazoa non dagoen jabetu naiz.

<< Bonjour Baionako herritar xelebreak! Ttipia FM-n zaudete eta orain berriak datoz...>> dio ahots alai batek, goizeko sei eta erditan irentsi ezin den ahots alai batek. <<Gaur San Valentin eguna da!>> hau desgrazia <<oparituiozu zerbait zure maiteñoari!>> Kanalez aldatu dut. <<Zein ederra den San Valentin eguna!>> Ez dut itxaron berdina egiteko <<eta orain kantu zoragarri bat gaurko maiteminduentzat.>>.

Ez dago ganorazko kate bat bera ere. Azkenean, musika klasikoarena jartzen amaitu dut. Ez da hagitz normala, nik, Sex Pistols-en Anarchy in the UK aditzen duen honek, Mozart eta Beethoven-en obra lokargarriak entzuten amaitzea. Bertze erremediorik ez dagoenerako errekurtsotzat daukat.

Biolinak, biolak, biolontxeloak eta biologoak aditu ondoren, hasi da solasean ahots grabeko gizon edadetua: <<Mozart-en bla, bla, bla entzun dugu orain, Parisera bla, bla, bla zenekoa. Gaurko egun baterako ezin aproposagoa. San Valentin zoriontsua opa dizuet!>>.

Irratia desentxufatu dut. Bost segundo geroago, irrati berbera bost solairu beherago dago, erabat puskatuta.

San Valentin eguna zorion txarteltxoen enpresek sortutako besta da, jendea kaka bat bezala sentiarazteko. Horixe zioen hainbertze gustatzen zitzaidan film hark.

Ogia erostera joan naiz. Egunero bezala disko denda zaharraren paretik pasa naiz; egunero bezala, Mikelekin gurutzatu naiz; egunero bezala, lokarria lotzen hasi delako plantak egin ditu, eta egunero bezala, ni joaten naizen bitartean nire ipurdiari begira gelditu da. Errutina hutsa.

Ogia erosterakoan ere "zein egun den gaur" gogorarazi dit Josefina okinak, nik irribarre nazkagarri batekin erantzun aurretik. Neure txapatarekin besazpian atera naiz eta, egunero bezala, Mikelekin bigarren aldiz gurutzatu naiz.

Gaur errutina hautsi da: Mikelek ahots hari batekin geldiarazi nau. Oparitarako paperez bildutako pakete bat entregatu dit. Jaungoikoari, Alari, Budari eta Bob Marley-ri errezatu diet susmatzen nuena ez izatearren. Faborez. "Zuretzako da, Inge" erran dit. "Ikusi zintudan lehen egunetik..." urduritzen hasi da "zera... ba... gust... gustuko zaitut!" atake bat eman balio ere! "Zure begiak... ikatza bezain beltzak dira" inoiz entzun dudan konparaziorik profesionalena. "Zure ahoa... marrubia bezalakoa da..." Hantxe belaunikatuz, kalearen erdian, Romeoren konfesioa egiten. Lotsatzen hasia naiz. "Mikel, barkatu baina... lanera joan behar dut" eta egia da, lanera joan behar dut.

Azkenean zutitu da (azkenean!) eta muxu bat eman dit paketea eman ondotik.

Bulegoan ireki dut paketea. Bonboiak... Duda! Berriz itxi dut kutxa, pare bat jan ondotik. Mikelekin gelditu naiz arratsaldean, zazpi eta erditan. Ez dakit nola onartu dudan.

Gipuzkoako sagardoa egiteko, sagarrondoetatik hartutako sagarren artikulua bukatzean joan naiz etxera.

Zertxobait apaindu naiz, Mikelekin egon arren, Ekaitzen ostatua baita. Gerrara joateko margoa bakarrik falta zitzaidan.

Txoko batean apartaturik zegoen mahai bat hartu dugu, beno, hartu dut eta ez Ekaitzi begiratu bat eman gabe. Bera, aldiz, ez da inoiz konturatzen. Ez da izanen begiratzen ez dudalako...

Pintxo bat eskatu dut, ebaki batekin. Mikelek ez du deus nahi. Zerbait hartu beharko gonbidatzen nauten aldirako!

Musikari buruz hasi gara solasean. Ez dakit zita moduko hauetan zertaz hasi hizketan, ez bainaiz hagitz berritsua. Björk du gustuko, neuk bezala. Sex Pistolsen Anarchy in the UK du gustuko, neuk bezala. Eta biak ala biak, hagitz desberdinak.

Denbora librera pasa gara, ordenagailuz egindako musika pixka bat kritikatu ondoren. Patinatzea du gustuko, neuk bezala. Euria, Neruda eta poesia du gustuko, neuk bezala. Ez da erraza nire gustu berdintsuak dituen bizidun bat aurkitzea planeta honetan. Ameslari gutti gara.

“La naranja mecánica” du gustuko, neuk bezala. Aldiz, futbola ez du gustuko, neuk bezala. Atsegina da Mikel hau, uste baino hobea. Finlandian egon da, neu ez bezala... Beti joan nahi izan dut Eskandinaviara. Sei hilabete ilunak tokatu zitzaizkion. Interesgarria.

Denbora pasa bitartean, itxuragatik ez dela gutxietsi behar ikasi dut. Ekaitz orain bigarren mailakoa dela uste dut. Horrelako tipo interesgarri baten aurrean...

Tratu bat egin dugu Mikel eta biok: bihar berriz elkartzen bagara, berarekin eramango nau Islandiara, Björk ezagutzera. Hagitz tentagarria...

Ez dakit brometan ari zen edo ez (inuxente hutsa naiz), baina hurrengo egunean ere hantxe gaude, txokolate beroarekin hitz eta pitz. Pelikulez oraingoan.

“La Naranja mecánica”, “Eternal Sunshine of the Spotless Mind”, “The curious case of Benjamín Button”... film espezifikoak ditu gustuko eta hagitz desberdinak beraien artean. Berrehungarren aldiz ikusi ditu, neuk bezala.

Eta hurrengo egunean ere bai, zineman, “The Reader” ikusten.

Eta hurrengoan...

Asteak eman ditugu honela, gaur arte.

Gaur, egunero bezala, ogia erostera joan naiz. Eta egunero bezala, Mikelekin topatu naiz. Eta egunero ez bezala konfiantzazko begirada batekin gurutzatu gara.

Dendan sartzerakoan, Ekaitz zegoen pipazko ogia ordaintzen. Eta nire bizitzan lehen aldiz, agurtu egin nau kalera ateratzear zegoela.

Beti amestu izan nuena da, beti nahi izan nuena, beti eskatu izan nuena... Eta hori guztia jakin ondoren, ez diot agurra bueltatu. Aupa zu, Inge!

Txapata erosterakoan, egunero bezala, Mikelekin topatu naiz berriz; baina hau bai agurtu dut, eta irribarre batekin.

Azken finean, denok erortzen gara San Valentin ospetsuaren maldizioan.